



Behako berri baten
ekartzea EAJri buruz



ELGARREKIN BIHARKO EUSKAL HERRIA ERAIKI DEZAGUN

EUZKO ALDERDI JELTZALEA

**Prentsa
dozierra**

EAJ-PNBren aurkezpena

HISTORIA

EAJ-PNB sortu da Bilbon, Bizkaiko hiri nagusian. Bere sortzailea, Sabino Arana Goiri, ikurrina eta neologismo askoren iturrian da ere, Euskadi, abertzale eta abar... Abertzale mugimenduaren bultzatzailea izan da.

XIX mendearen bukaeratik, 1979ko Autonomi Estatuturat, Espaniako guda zibilaren garaiaz pasatuz, EAJ-PNBk eragile garrantzitsua izan da, herri honen historian.

EGITASMO POLITIKOA

Eguneroko bizian osoki murgildurik, EAJ-PNBk lurralde egitasmo bat proposatzen du egiazko bizi egitasmo batentzat. Bi mailetako egitasmo hau oinarri horietan finkatzen da :

ESTADOAREN ANTOLAKETA

Tokiko demokraziaren eredu oreka baten bilatzea deserditze eta autonomiaren artean.

EUROPA FEDERALA

Toki osoa hartzea biharko Europa federalean eguneroko bizian unkitzen gaituzten erabakietan elkarturik izanez.

GARAPEN EKONOMIKOA

Mundializazioari begira, nortasuna eta lurraldeak kontutan hartzen duen eredu ekonomiko baten bultzatzea.

HIZKUNTZ POLITIKA

Mende askotako hizkuntz baten garapena, gaurkotasanari elkartzea.

GARAPEN KULTURALA

Nortasuna eta idekiduraren arteko oreka bilatzea.

GARAPEN JASANGARRIA

Garapen orekatua sendotzea molde jarraikian.

EUSKO JAURLARITZA

Euskadiko lurralde autonomoaren gobernua kudeatzen du EAJ-PNBk, 26 urte hauetan. Bakarrik edo koalizioan kudeatu du lurralde hau.

Juan Jose Ibarretxe, Eusko jaurlaritzaren Lehendakaria, alderdikidea da.

Gaur, Euskal Autonomi Erkidegoak dinamismo eta hazkunde garai estonagarria ezagutzen du, krisi ekonomiko garai larri baten ondorioz.

80 urte hamarkadan, lurralde honek kasik %30aren langabezia tasa ezagutu du. 1986an, bizi maila, Europako erdiaren %80ekoa zen.

Gaur, langabezia %7koa da. Bizi maila Europako mailaren %110ekoa da, 10 puntu gehiago.

Lurralde hau Frantziaren bigarren herrialde aberatsena litaik, Rhône-alpes-ren aintzinean.

Eusko Jaurlaritzak bere polizia dauka (Ertzaintza), bere hezkuntza sistema, ama eskolatik unibertsitateraino, bere osasun sistema (Osakidetza), bere telebistak (Euskal Telebista), bere irratiak (Euskadi Irratia, Euskadi gaztea, EITB irratia...). Mail ezberdinetan bere politikak eramaiten ditu : industrian, gizarte arazoetan, kulturean, turismoan...

Bere zergak kudeatzen ditu. Tokian berean hartuak dira. Español Estadoari bidaltzen dio parte bat, orokorraren %6a gutti gora behera, Estadoari gelditzen zaizkion eskuduntzen truke.

ANTOLAKETA

Sortuz geroz, herria, herrialdea eta aberria hiru mailetan oinarritzen den biltzarreko alderdia da PNB. Halaber, erabakitze prozesua behetik gorakoa da, herri eta herrialde mailetako nahikundeak kontutan hartuz

EAJ-PNBren filosofi demokratiko sakon baten ondorioa da ibilmolde berezi hau. Gaur, 233 Herri erakundeetan ordezkatua da EAJ-PNB, 7 lurralde historikoetan, 31 000 alderdikideekin.

Euskal nortasuna

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN INKESTAREN EMAITZAK

2005ean, Euskal Kultur Erakundearen eskutik euskal nortasunari begira egin inkesta baten ondorioz, Iparraldeko euskal nortasunaren ikuspegi orokorra argian ezartzen da. Iparraldeko biztanleentzat, etnizismo baloreetan oinarritzen da euskal nortasuna. Euskara dun izaitzea, euskal erro zaharren ukaitea, dira irudimen orokorrean ezinbesteko baldintzak euskal mundukoa izaiteko. Iparraldeko biztanle asko ez dira euskaldun senditzen, berek euskalduntasuna definitzen dituzten irizpide horietan ez baitira sartzen. Ez dute esku-bide hori edo euskaldun izaiteko diginitatea ikusten.

GURE IKUSPEGIA NORTASUNAZ

Euskal nortasuna eta euskal izaitze ikuspegi guttietsigarri horren aintzinean, idekidura eta onargarritasuna proposatzen digu PNBk.

PNBrentzat, euskaldun izaiteko, euskal lurraldea egunero bizitzea da oinarria. Horrek dakar hemen bizitzeko hautu arrunta, euskaldun definitzeko.

Betiko irudi faltsu atzerakoietatik urrunduz, euskal nortasunaren gaurko ikuspegi ideki eta aberatsa proposatzen digu PNBk. Ezberdintasun guzien gainetik, lurralde eta herri baten bizia eta geroa, egunero elgar partikatzen duten jende erki-dego batena.

Komunikazio kanpaina

1996az geroz, Iparraldean, errotzeko bultzapen berri baten egitea erabaki du PNBk. Gaur, PNBk lurralde honen biztanle guziei jakinarazi nahi die, nor den, defenditzen dituen baloreak, gerorako egitasmoa Iparraldearentzat eta biztanleentzat. Hiru helburu horietan oinarritzen da PNBren eskutik bultzatutako komunikazio kanpaina.

Lehen urrats batez, helburua da azaltzea, PNBren filosofiarekin, zer den euskaldun izaitzea. Urrats hortan, Iparraldeko biztanleak konbentzitu behar dira, euskal lurraldeari atxikia izaitzea ez dela bakarrik iragana baten jabe izaitzea. euskal nortasuna gauza nabarmena bezala, hemen, egunero bizi direnentzat. Kanpaina hortan, euskaldun izaitzea, Euskal herriari bere eguneroko lana, bere eguneroko biziaren ekarpena da... Mail hortan, bakoitza euskalduna da eta bakoitza berez eguneroko ekarpena egiten dio herri honen biziari eta bilakaerari. Kanpaina horren lema nagusia, Iparraldeko biztanle guziei zuzendua da aldarrikatuz : « zu zira egiazko euskal indarra ! ».

Bigarren urrats batez, promozio kanpaina horrek PNBren ezagupena azkartu nahi

du, Iparraldean. 26 urteetan kudeatzen duen Hegoaldean, azkarki errotua bada ere, onarpen huts batean egoiten da PNB, Iparraldean. Kanpaina horren helburua da PNBren ezagutaraztea, baina ere azaltzea bere eginkizunarako gaitasuna egitarau ekonomiko, zozial eta kulturetan oinarriturik ... hots, egiazko bizi egitasmoa Iparraldearentzat.

TRESNAK

Helburu horien lortzeko, PNBk tresna horiek finkatu ditu :

• **4x3 metroko afitxaketa kanpaina :** Iparralde osoan banaturik, kanpaina honek orroitaraziko du, euskaldun izaiteko PNBrentzat, Euskal herrian bizitzea dela oinarria

• **Irrati kanpaina :** Euskal irratiaren banaturik, irrati saioa entseatuko da azaltzea PNBren inplikazioa euskal egunerokotasunean

• **Telebista kanpaina :**

TVIn, PNB entseatuko da azaltzea nor den, nola alda lezake sakonki Iparraldearen geroa.

• **Azalpen dokumentoa :**

12 orrialdeetan, dokumento hau nasaiki banatua izanen da xehetasunetan sartzeko, azalduz zer den PNB, bere ikusmoldea euskal nortasunaz, bere historia, bere egitasmoak.



Beñat OTEIZA
EAJ-PNB
06 19 89 52 82

Foro
Autonómico

ELGARREKIN BIHARKO EUSKAL HERRIA ERAIKI DEZAGUN

www.eaj-pnb.com

EUZKO ALDERDI JELTZALEA